

A stylized illustration of a person with a grey face and black body, wearing a black hood, reading a large white book. The background is a vibrant pink and orange. In the top left corner, there is a stylized orange sun with a smiling face.

zerbikas^{en}
0 gidak

**ikasketa eta
zerbitzu
solidarioen
sakelako gida**


_ Koordinazioa: Laura Rubio

_ Egokitzena: Zerbikas Fundazioa



aurkibidea

1. Hasteko, zenbait adibide	4
2. Ikasketa eta zerbitzu solidarioaren azalpena (letaZS)	5
3. letaZS ez da...	6
4. letaZSren pedagogia	7
5. Oinarrizko eskakizunak	8
6. Ustezko ikasketak	10
7. Ustezko zerbitzuak	12
8. Amaitzeko, letaZS abian jartzeko arrazoiak	15
9. Baliabideak	16





*Gauza txikitxoak dira.
Ez diote txirotasunari aurre egiten,
ez gaituzte azpigarapenetik
ateratzen,
ez dituzte ekoizpen eta aldaketa
bideak gizarteratzen, ez dituzte Ali
Babaren haitzuloak desjabetzen.
Dena dela, beharbada, egiteko
alaitasuna sortu
eta ekintza bihurtzen dute.
Azken batean, errealitatean jardutea
eta apurtxo bat aldatzea da
errealitatea eraldatu egin daitekeela
egiaztatzeko modu bakarra.*

Eduardo Galeano

1 HASTEKO, ZENBAIT ADIBIDE

Irudi batek mila hitzek baino balio handiagoa du. Zenbait eredu egokik ere edukiko dutelakoan gaude:

- Esplai Fundazioak sustatutako **“Konekta Gaztea”** proiektuan, institutuetako edo astialdi-elkarteetako 16 eta 17 urteko gazteak behar den moduko prestakuntza egiten ari dira, inoiz ordenagailua erabili ez duten helduei oinarrizko informatika irakasteko. Horrela, haustura digitala murrizten da.
- **“Bizi gaitezen elkarrekin”** elkarbizitzarako hezkuntza-proiektua da, eta Bilboko Zamakola Haur eta Lehen Hezkuntzako Herri Ikastetxean garatzen da. Bertan, neska-mutikoek behar besteko trebetasunak

lantzen dituzte, gainerako ikasleen gatazketan bi-tartekariak izateko. Horrela, euren prestakuntza integrala sustatzen dute.

- Jesusen Bihotza Ikastolak **“Odol-emaile berrien bila”** proiektua jarri du abian, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen koordinaziopean, eta neska-mutilak zein nerabeak inplikatzeko dituzten odola ematea beharrezkoa dela adierazteko eginkizunean. Neska-mutilak odolari, odol-emateari eta komunikazio-alderdiei buruzko eduki kurrikularrak ikasten dituzte, eta, aldi berean, osasuna sustatzen dute euren ingurune hurbilenean.

“Konekta Gaztea”, “Bizi gaitezen elkarrekin” eta “Odol-emaile berrien bila” hiru esperientziak parte-hartzaileen adinari, inplikaturako eragile-motari edo zerbitzua garatzeko arloei begira desberdinak badira ere, edukien zein balioen **ikasketa** bateratzen dute er-kidegoarentzako benetako **zerbitzuarekin**.

Hiru esperientziak ikasketa eta zerbitzu solidarioaren adibide argiak eta jarduera egokiak dira. Euren bidez, hezkuntza-proposamena azaldu dezakegu, neska-mutilen, nerabeen eta gazteen partaidetzan eta hezkuntza zein gizarte arloko erakundeen arteko trukean eta lankidetzan oinarrituta.




2 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOAREN AZALPENA

Hona hemen ikasketa eta zerbitzu solidarioaren azalpena (letaZS):

“Ikasketa eta zerbitzua hezkuntza-proposamena da, eta ikasketa zein erkidegoarentzako zerbitzua bate-ratzen ditu ondo egituratutako proiektu bakar ba-tean. Bertan, hain zuzen ere, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, inguruneko benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz”.¹

Bere izenak ondotxo adierazten duenez, letaZS guztiek ezagututako bi elementuren ondorioz sortutako binomioa da (ikasketa eta zerbitzu solidarioa). Izan ere, bat egitean, errealitate berria sortzen dute, eta bakoitzak banan-banan dituen eraginak biziagotzen dira:



- Ikasketak zerbitzua hobetzen du, ikasitakoa errealitate-eraman daiteke ekintza moduan eta, horri esker, kalitateko zerbitzua eskaintzen zaio erkidegoari.
- Zerbitzuak ikasketa hobetzen du, motibatu egiten du, zentzua ematen dio, bizi-esperientzia ematen dio eta, horri esker, ikasketa berriak ateratzen dira.

letaZSn, asmo pedagogikoa eta asmo solidarioa uztartzen dira. letaZS gizarte-erabilgarritasuna duen hezkuntza-proiektua da.

letaZSk ahalmen pedagogiko handia duenez, egokiak bezain beharrezkoak diren beste jarduera eta metodo askorekin batera garatu beharko litzateke. Ez dugu irudikatzen letaZSn bakarrik oinarrituta dagoen hezkuntza-menua, baina jakin badakigu interes pedagogiko handia duela, umeen, nerabeen eta gazteen bizitzako uneraren batean hezkuntza-aukera aparta delako.

letaZS ikastetxeetan ezartzean, ez dira erabat berriak diren jarduerak asmatu behar zerotik hasita. Gure lurraldeko hezkuntza-ibilbidea aberatsa da hezkuntza-zeregina eta inguruneko gizarte-premiak uztartzeko esperientzietan. Ingurura begiratu eta berreskuratu besterik ez dugu.

¹ Puig, J. M.: Batlle, R.: Bosch, C. eta Palos, J.: Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía. Bartzelona, Octaedro argitaletxea, 2007 (1. edizioa katalanez, 2006), 20. or.

3 IETAZS EZ DA...

letaZS azaltzean, esperientziaren pedagogian eta partaidetza bateratuan oinarritutako beste jarduera batzuekin erkatu behar dugu. Hurrengo grafikoan, zenbait proposamen zehazten dira, eta, bertan, zerbitzua zein ikasketa letaZSn ez bezala bateratzen dira.



1 letaZSren eta borondatezko lanaren arteko aldea

letaZS eta borondatezko lana desberdinak dira. Bigarren, erkidegoarentzako zerbitzua da nagusi,

baina horrek ez du esan nahi ikasketa esplizituak eta sistematizatuak ezinbestean eman behar direnik. Nolanahi ere, borondatezko lanaren jarduera sendoa letaZSko proiektuetarako abiapuntu egokia izan liteke.

Borondatezko lana = ZERBITZUA + Ikasketa

2 letaZSren eta landa-lanaren arteko aldea

letaZS eta landa-lana, ikasketa-proiektua, interes-gunea, practicum edo zeharkako gaien garapena ere ez dira berdinak. Oro har, curriculumeko eduki zehatzen ikasketan daude oinarrituta, baina erkidegoarentzako zerbitzu-maila txikia da. Dena dela, jarduera horiek ere letaZSko proiektuetarako abiapuntu egokia izan litezke.

Landa-lana = IKASKETA + Zerbitzua

3 letaZSren eta noizbehinkako ekimen boluntarioen arteko aldea

Azkenik, letaZS noizbehinkako kanpaina edo ekimen motelen beste aldean dago. Euren zerbitzuak, hain zuzen ere, nolabaiteko eragina eta kalitatea ditu eta ikasketak ez daude lar sistematizatuta.

2 Egokitzapena: SERVICE-LEARNING 2000 CENTER: Service Learning Quadrants, Palo Alto, C.A. 1996.

4 IETAZSREN PEDAGOGIA

IetaZSren azalpena proposamen osoa kokatzen duten zenbait printzipio pedagogikotan dago oinarrituta:

- 1 Araketan, ekintzan eta hausnarketan oinarritutako **ikasketaren** kontzepzioetik abiatzen da, jakintzaren ezargarritasuna zein erabilgarritasuna nabarmentzeko.
- 2 Horrez gain, IetaZSren arabera, **balioetan oinarritutako hezkuntzan** egoera arazotsuak dira abiapuntua eta esperientzia zuzenetik aurre egin behar zaie erronka horiei, adimen moralak eskainitako tresnen bitartez eta kultura moralaren laguntzaz.
- 3 Azkenik, IetaZSren arabera, **herritartasunerako hezkuntza** partaidetza aktibo, arduratsu, kooperatibo eta solidarioan oinarrituta egon behar da, gizartearen bizi-kalitatea hobetzeko.

Zentzu horretan, honako haxe da IetaZS:

- **Gizarte-erabilgarritasuna duen hezkuntza-proiektua:** IetaZSk erkidegoaren benetako premiak antze-man behar ditu eta ekin egin behar die.
- **Hezkuntza formal eta ez-formalerako metodoa, adin guztietarako. Gainera, denbora eta espazio zehatzak izan behar ditu:** IetaZS malgutasunez eta egoera

bakoitzera egokituta kokatu behar da hezkuntza-erakundeen lanerako antolamendu-egituran.

- **Ikasteko eta elkarrekikotasunaren esparruan batera lan egiteko zerbitzua:** IetaZSn, inplikaturako alderdi guztiek gauza baliotsua jasotzen dutenez, jarduera asistentzialistak gainditzen dira.
- **Jakintzak eta bizitzarako trebetasunak bereganatzeko prozesua:** IetaZSk helburu pedagogikoak, eduki kurrikularrak eta erakundearen beraren trebetasunak jarri behar ditu abian, eta modu kontziente, antolatu eta sistematikoan garatu behar dira.
- **Pedagogia aktibo eta hausnarkorrerako metodoa:** IetaZSren inspirazio-iturria honako elementu haue-tan oinarritutako pedagogia da: esperientzia, partaidetza aktiboa, diziplina artekotasuna, talde-lana eta funtsezko hausnarketa.
- **Hezkuntza-erakundeak eta errealitatean esku hartzen duten gizarte-erakundeak koordinatzen dituen sareko lana:** IetaZSk gizarte-ingurunera ireki eta proiektatzen ditu hezkuntza-erakundeak, garapenerako lankidetzak sustatzen du eta sareko lana sus-pertzen du.
- **Prestakuntza-arloko eragin eraldatzailea:** IetaZSk eragin zuzena dauka parte-hartzaileen garapenean, inplikaturako erakundeetan eta bertako gizarte-ingurunean.

5 OINARRIZKO ESKAKIZUNAK

Azaldutako ezaugarriek aukera ugari eskaintzen dituzte, letaZSko proiektuak diseinatzeko orduan. Proiektu horiek bost alderdi bateratu dituzte, letaZSko proiektuak abian jartzeko oinarrizko eskakizunak, alegia: ikasketa, zerbitzua, proiektua bera, partaide-tza eta hausnarketa.

IKASKETA + ZERBITZUA + PROIEKTUA + PARTAIDETZA + HAUSNARKETA



IKASKETA

Ikasketa sistematizatuta egon behar da, eman beharreko zerbitzuarekin eduki behar du zerikusia eta protagonistek prozesua baino lehen, bitartean eta ondoren ikasiko dutena azaldu behar du. Ikasketak oso lagungarriak dira errealitatea ulertzeko, premien diagnostikoa egiteko, kalitateko zerbitzua eskaintzeko, ekintza bera berrikusteko eta etorkizunean hobetzeko. Ahal dela, oso interesgarria da letaZSko proiektuak eta ikasketa kurrikularrak lotzea. letaZSri esker,


diziplina arteko edukiak landu eta zeharkako trebetasunak sustatu daitezke.

ZERBITZUA

Zerbitzua benetakoa izan behar da, eta inguru hurbil edo globalaren benetako premiei erantzun behar die, ingurune hori hobetzeko asmoz. letaZSko proiektuen inspirazio-iturria bestetasunaren eta elkarrekikotasunaren printzipioak dira. Horrela, bada, letaZSko zerbitzua ekintza asistentzialistetatik aldentzen da, eta prestakuntza-eragin eraldatzailea du protagonistetan, ikastetxeko giroan eta ingurunean. Hori dela eta, hezkuntza-erakundeek eta gizarte-erakundeek sarean lan egin behar dute.

PROIEKTUA

Asmo pedagogikoa argia izan behar da, eta hezitzaileak hezkuntza-proiektuaren plangintza zein ebaluazioa egin behar ditu. Beraz, ikasketa ez litzateke simulakroa izan beharko, ez litzateke gorabeheratsua izan beharko eta ez litzateke berezko ikasketa-egoerekin nahastu beharko. letaZSn, zerbitzua kalitatekoa izan behar da, eta ekintzen zein horien ondorioz sortutako bizipenen dimentsio pedagogikoa atera behar da. Horixe bera da, hain zuzen ere, letaZSko proiektuetako hezkuntza-zeregin nagusietakoa.



PARTAIDETZA AKTIBOA

IetaZSko esperientziak neska-mutilen partaidetza aktiboan eta protagonismoan oinarritu behar dira, eta, horrela, informazio-proposamenak gaindituko dituzte. Ikasketak oinarri horretan eratzen dira, eta, horri esker, adierazgarriak dira benetan. Protagonistek proiektuko fase guztietan parte hartu behar dute: premiak antzematea, hobekuntza-proposamenak diseinatzea... Ulegarria denez, protagonismo horren intentsitatea euren adin, heldutasun eta gaitasunen arabera izan behar da.

HAUSNARKETA

IetaZSko proiektuak behar bezala abian jartzeko, parte-hartzaileek une oro jakin behar dute zer egiten den eta nolako erabilgarritasun soziala duen. IetaZSn, ezinbestekoa da aukeratutako prozesuari, egindako ikasketari eta zerbitzuaren eraginari buruz hausnartzea. Hausnarketa horri esker, ikasketak berriak txertatu eta integratu egin daitezke, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta jarrera paternalistak gainditzeko, egindako zerbitzuaren bidez asko ikasten dutela konturatzeko protagontistak.

6 USTEZKO IKASKETAK

letaZSk edozein hezkuntza-erakundetan du zentzua, bere ekarpen nagusietakoa proposatutako helburu pedagogikoak hobetzea delako. letaZSk kalitate handiagoa ematen die ikaskuntzei, erabilgarritasun zuzena ematen dielako, proiektu instituzionalari zentzua ematen diotelako, diziplina arteko lana sustatzen dutelako eta protagonistek errendimendu zein motibazio handiagoa dutelako hezkuntza-erakunde aurrean. Berrikuntza metodologikoa ez ezik, letaZSk benetako hezkuntza integrala ere bultzatzen du.

TREBETASUNEN IKASKETAN

letaZSn, oso nabarmena da bere ikaskuntzei esker trebetasunak garatzeko aukera izatea. Gainera, gaitasunak, trebeziak, jakintzak eta balioak ere mobilizatzen dira, benetako egoerei eraginkortasunez aurre egiteko.

Europar Batasunak proposatutako oinarritzko trebetasunek herritartasun aktiboa jartzen dute abian, eta funtsezko hezkuntza-erreferenteak dira. Trebetasun horiek gizarte-ekintzen bidez ikasi eta garatzen dira, eta, ekintza-hausnarketa prozesuan, balioak eratzten

dira, prozedurak bereganatzen dira, konpromisoak zehazten dira... Azken batean, herri-espiritua garatzen da, eta inplikaturako modu praktikoan bereganatzen dute herritartasun-sentipena, bai eta erkidego bateko kidegata arduratsuen esperientzia ere.

Trebetasun hauek antolatzeke era amankomun bat Delors³ Txostenean aurkeztutako hezkuntzaren lau zutabeak dira; horiei, ikasketari buruzko bosgarrena gehitu behar zaie:

1 Ezagutzen ikastea

- Honako gai hauen inguruko kontzientzia hartzea, gaiok aztertzea eta ulertzea: erronka edo arazo sozial zehatzak, ekintza politikoak eta gobernu-jarreak, arazoak eta ondorioak.
- Erkidegoko testuinguruaren konplexutasuna eta aberastasuna ezagutzea: gizarte-eraldaketan engeiatutako elkarteak eta pertsonak.
- Pentsaera kritikoa garatzeko trebetasunak: errealtate konplexu bezain aldagarriaren aurrean jakinminari eustea, informazioa aztertzea eta sintetizatzea, hausnartzea, erabakiak hartzea, aurreiritziak alde batera uztea...

3 DELORS J. (et al): La educación encierra un tesoro (UNESCOrentzat XXI. mendeko hezkuntzari buruz egindako txostena). Madril, Santillana, 1996.



2 Egiten ikastea

- Proiektuak egiteko trebetasunak: plangintza egitea, antolatzea, kudeatzea, zabaltzea, ebaluatzea...
- Egindako zerbitzurako trebetasun zehatzak.
- Trebetasun eta abilezia profesionalak.
- Banan-banako zalatesunak eta gaitasunak erkidegoaren zerbitzura jartzea.

3 Izaten ikasten

- Autoezagutza eta buru-estimua.
- Autonomia pertsonala.
- Konpromisoa eta erantzukizuna.
- Ahalegina eta irmotasuna.
- Eraginkortasun pertsonala eta "jabekuntza".
- Frustrazioarekiko tolerantzia, erresilientzia.

4 Elkarbizitzen ikasten

- Komunikazioa eta adierazpena.
- Ikuspegi soziala eta enpatia.
- Talde-lana eta horretarako gaitasunak: hitz egitea, hitzartzea, amore ematea, eskatzea...
- Gatazken konponbidea.
- Erkidegoko kidetza.
- Prosozialitatea eta elkarbizitza-ohiturak: ulermena, adeitasuna, eskuzabaltasuna, elkartasuna...
- Konpromisoa, erantzukizuna eta erkidegoko zein gai publikoetako partaidetza.

5 Ekiten ikastea

- Proiektuak irudikatzeko eta norberaren irizpidez jarduteko gaitasuna.
- Plangintza egitea, erabakiak hartzea, jardutea, egindakoa ebaluatzea eta autoebaluatzea.
- Aurreikusitako planak garatzeko besteko ekintzak egitea, proiektu pertsonal edo kolektiboen arloan.
- Aurreitazko proposamenak berregitea edo ideia berriak egitea.
- Konponbideak bilatzea eta abian jartzea.
- Ondorioak ateratzea eta hobekuntza-aukerak balioestea.



7 USTEZKO ZERBITZUAK

Ikaskuntzetan gertatzen den bezala, letaZSk egin beharreko zerbitzuen inguruko aukerak eskaintzen ditu. Euren artean, nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela hezkuntza-erakundeak ingurunera irekitzea eta gizarte-erakundeekin batera lan egitea; azken batean, zerbitzu-zeregin zehatzak eskaintzeko erraztasun handiagoa dute, neska-mutilak, nerabeak eta gazteak inplikatu daitezten.

Gizarte-erakundeak eta ingurunean zuzenean egin daitezkeen zerbitzuak arlo tematikoen arabera sailkatu daitezke. Ondoren, arlo horiek berrikusiko ditugu, hau da, bakoitzaren ondorioz sortutako zerbitzu-zeregin zehatzak. Era berean, letaZSko proiektuen adibideak diren esperientziak ere aipatuko ditugu kasu bakoitzean. Adibide horien bidez, aurreko orrialdeetan azaldutako letaZSko proiektuetako zenbait elementu nagusi jarriko ditugu agerian.

4 Zerbitzu posibleen adibide gehiago (ingurumena, herritarren partaidetza, kultur ondarea, belaunaldien arteko trukea, beste pertsona batzuei zuzendutako laguntza, eskolatzeko euskarria eta garapenerako lankidetzak), Zerbikaszen web orriko Esperientzia-bankuan: www.zerbikas.es/eu/banco.html




ESPARRUA: HERRITARREN PARTAIDETZA

Auzoan edo inguru hurbilean parte hartzeko aukerak ematea, bertako bizilagunen konpromiso hiritarra eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Esperientzia: *bide lagunak*

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Ingurumen eta Lurralde Antolakuntza Sailak, Bilboko Udalak eta Abusu auzoko Zamakola LHI eta Ibaizabal BHI ikastetxeek kolaboratzen dute. Gazteek eta adin txikikoek ingurua aztertu dute, eta proposamenak egin dizkiote Udalari, ingurua hobetzeko. Gainera, ibilbideak eta topaketarako puntu eta orduak diseinatu dituzte, eta, horrela, ikasle nagusienek txikiei itxaroten eta laguntzen diete, ikastetxera joateko.





ESPARRUA: OSASUNAREN SUSTAPENA

Osasun-arloko prebentzio eta hobekuntzarako proiektuak.

Esperientzia: *farmaholkuak*

Bartzelonako Escola Solc Nouko Farmaziako erdi-mailako zikloko ikasleek osasun-arloko tailerrak antolatu eta beste ziklo batzuetako ikasleei ematen dizkiete. Era berean, beste ingurune batzuetako pertsonentzat ere badaude zabalik: beste eskola batzuk, adinekoen zentroak eta etorkinen zentroak.



ESPARRUA: INGURUMENA

Ingurumen-arloko zainketa, artapen eta hezkuntzarako proiektuak.


Esperientzia: *ikagelako ekoikuskaritza*

Jardueran, Sant Joan Despíko Udaleko Centre Mediambiental l'Arrelenek eta udalerriko eskolek parte hartzen dute. Protagonistak Lehen Hezkuntzako goizikloko ikasleak dira. Bertan, ikastetxe bakoitzeko ingurumen-arazoak aztertzen dira, eta eskolan nahiz auzoan energia aurrezteko ekintzak antolatu eta abian jartzen dira.



ESPARRUA: GARAPENERAKO LANKIDETZA

Sentsibilizazio eta defentsarako proiektuak giza eskubideen eta nazioarteko zein irismen handiko jarduketara solidario eta humanitarioetan.



Esperientzia: *ahotsik gabekoen ahotsa*

Mataroko Salestarren ikastetxeko DBHko lehen zikloko ikasleen ekimena da, eta Fundació 3r Mon-Mataroren laguntzaz jarri dute abian. Jardueraren bitartez, ikasleek eurek asmatutako abestien kontzertua antolatzaren dute, eta, kanta horietan, ikasturteko bigarren hiruhilekoko kanpaina solidarioan landutako gaia dute hizpide.



ESPARRUA: BABESA AUTONOMIA PERTSONALARI

Duten egoera fisiko eta sozialaren ondorioz, bizimodu autonomoa izateko babesa behar duten pertsonen laguntza ematea.

Esperientzia: *bizitzarako zerbitzu pertsonalak*

EHU-UPVko Filosofiako eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateek eta ASPACE-Gipuzkoak ekintza hau egiteko proposatu die Gizarte Hezkuntzako ikasleei. Modu horretan, erantzuna ematen zaio ASPACEren erabilzaileek duten beharrian bati, eta harremanetarako aukeren eta horrek beste pertsona batzuegan dituen eraginaren gaineko trebakuntza arloko hausnarketa ahalbidetzen du, Animazio Soziokulturalerako Programak ikasgaiari lotutako Mintegi batean.




ESPARRUA: BELAUNALDIEN ARTEKO TRUKEA

Adin desberdinetako taldeak hurbiltzea, ezagutzak eta trebetasunak partekatzea.

Esperientzia: *bonbardaketaren urtebetetzea*

Granollerseko Sant Jordi Klubeko jubilatuek eta Antoni Cumella BHiko ikasleek, denek elkarrekin, Gerra Zibilean Granollersen izandako bonbardaketari buruzko aldizkari monografikoa egiten dute, herritarren artean bertako historia berreskuratu eta hedatzeko asmoz. Modu horretan, aipatutako bi kolektiboek hobetu egiten dituzte euren ezagutzak, antolakuntza eta komunikazio arloko gaitasunak, eta elkarrekiko errespetua.



8 AMAITZEKO, IETAZS ABIAN JARTZEKO ARRAZOIAK

Gidan zehar, zenbait aldiz agertu da zergatik den letaZS gaur egungo egoera pedagogikoan kontuan hartu beharreko hezkuntza-proposamena. Ondoren, garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu.

Protagonisten arloan, letaZS(k):

- Elkarrekiko onura zuzena sortzen du egilearen eta zerbitzu-hartzailearen artean.
- Ikasketa suspertzen du, bizipenezkoa, kritikoa eta esanguratsua izan dadin.
- Gazteei protagonismo erabilgarria ematen die ikas-tetxeetan bertan nahiz gizartean, eta irudi positiboa itzultzen die.

Hezkuntza-erakundearen arloan, letaZS(k):

- Neska-mutilen garapen akademikoa, herritarra, etikoa, pertsonala, soziala eta profesionala bultzatzen ditu, eta euren hezkuntza-errendimendua hobetzen du.
- Ohiko hezkuntza-proposamenak eta metodologiak gaintitzen ditu.
- Hezkuntza-erakundeko giro soziala hobetzen du.

Erkidegoaren arloan, letaZS(k):

- Gizarte-erakunde eta bere xedea agerian jartzen ditu.
- Erkidegoko beste eragile batzuekin batera eta koordinaziopean lan egiteko aukera eskaintzen du, gizartea hobetzeko.
- Neska-mutilen gizarte-erantzukizuna sustatzen du, etorkizunean jarduketa solidarioekin bat egin dezaten.

Erkidegoaren arloan, letaZS(k):

- Hezkuntza-erakundearen eta gizarte-erakundearen arteko sareko lana sustatzen du.
- Baliabide didaktiko moduan ez ezik, esparru pedagogiko eta hezkuntza-ekintzen protagonista nahiz hartzaile moduan ere bultzatzen du lurraldea.
- Lurraldeko elkarte-sarea indartzen du.

Arlo politikoan, letaZS(k):

- Politika eta gobernu-jarduerak ulertzen laguntzen du.
- Herritartasunaren eta herri-erantzukizunaren erabilerara hobetzen du.
- Proposamen iraunkorra da, baliabideei etekina atara eta ahaleginak bateratzen dituelako, lurralde berean hezkuntza zein gizarte arloan dauden premiei erantzuteko.

9 BALIABIDEAK

LIBURUAK

MARTÍN, X. eta RUBIO, L.: Experiències d'aprenentatge servei. Bartzelona, Octaedro argitaletxea, 2007.

MARTÍNEZ, M. (Koord.): Aprenentatge servei i responsabilitat social de les universitats. Bartzelona, Octaedro argitaletxea, 2008.

PUIG, J. M.; BATLLE, R.; BOSCH, C. eta PALOS, J.: Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía. Bartzelona, Octaedro argitaletxea, 2007 (1. edizioa katalanez, 2006)

TAPIA, M. N.: Aprendizaje y servicio solidario. Buenos Aires, Ciudad Nueva argitaletxea, 2006.

ZERBIKASen GIDAK

Zerbikas gida 0: ikasketa eta zerbitzu solidarioaren sakelako gida. Zerbikas Fundazioa, 2008.

Zerbikas gida 1: nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat. Zerbikas Fundazioa, 2008.

WEB ORRIAK


Zerbikas: www.zerbikas.es (Euskadi)

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei: www.aprenentatgeservei.org (Katalunia)

CLAYSS (Amerika Latinoko Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren Zentroa): www.clayss.org (Argentina)

National Youth Leadership Council: www.nylc.org (AEB)

Learn and Serve America's: www.servicelearning.org (AEB)



Gida honetako edukia, Laura Rubiok koordinatua, hemendik ateratakoa da: Puig, J. M.; Batlle, R.; Bosch, C. eta Palos, J.: *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona, Octaedro argitaletxea, 2007. Horrez gain, Ikasketa eta Zerbitzu Sustatzeko Zentroaren web orria erabilia da.



Provença, 324 08037 Barcelona
www.aprenentatgeservei.cat

© Edizio honena:



Indautxu, 9 48011 Bilbo
www.zerbikas.es

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizatekp Zuzendaritzaren eta Gazteria eta Gizarte-ekintza Zuzendaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesak jaso ditu



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
DEPARTAMENTO DE CULTURA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

Diseinua: Álvaro Pérez Benavente / www.estudionuvola.es

ISBN: 978-84-9726-514-0 D.L.: BI-3832-08

Eskubide guztiak gordeta.



fundazioa
zerbikas

ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario

